



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko otsailaren 11

25. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako landaguneetako biztanleek kalitatezko osasun-laguntza edukitzeko prestazioak eta eskubideak. Amparo Viñuales Galé andrea ordezkari duen Nafarroako Udalen Legegintza-ekimenerako Udalbatza Sustatzaileek egina (2. or.).
- Foru Lege proposamena, kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatukoa premiatzen dira neurriak har ditzaten doako osasun-laguntzaren inguruan. Osasun Batzordeak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Osasuneko kontseilariak kargua uztearen komenigarritasunari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (12. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuko lehendakariak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariarenganako konfiantzari eusten al dion, departamentu horren egoera larria dela-eta, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren kirolaren, ekonomiaren nahiz politikaren arloetako konpromisoari buruzkoa eta jakiteko zer neurri hartuko dituen Miguel Indurain Sari Nagusia dela-eta, Amaya Zarranz Errea andreak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko Osasun Departamentuak bizi duen egoera larriari dagokionez zer balorazio egiten duen Nafarroako Gobernuak, Marisa de Simón Caballero andreak egina (14. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako landaguneetako biztanleek kalitatezko osasun-laguntza edukitzeko prestazioak eta eskubideak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.c) artikulua Nafarroako udalei aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz eta Nafarroako Udalen Legegintza-ekimena arautzen duen martxoaren 25eko 4/1985 Foru Legearen babesean, Nafarroako landaguneetako biztanleek kalitatezko osasun-laguntza edukitzeko prestazioak eta eskubideak arautzen dituen Foru Lege proposamena aurkeztu da Nafarroako Parlamentuan, Amparo Viñuales Galé andrea ordezkari duen Nafarroako Udalen Legegintza-ekimenerako Udalbatza Sustatzaileek egina.

Ikusita Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoek haren onargarritasunari buruz emandako txostena, aipatu Foru Legearen 5. eta 7. artikuluekin eta Erregelamenduaren 149 artikuluan xedatutakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako landaguneetako biztanleek kalitatezko osasun-laguntza edukitzeko prestazioak eta eskubideak arautzen dituen Foru Lege proposamena, Amparo Viñuales Galé andrea ordezkari duen Nafarroako Udalen Legegintza-ekimenerako Udalbatza Sustatzaileek egina.

2. Agintzea erabaki hau eta aipatu foru lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 148 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena,
zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako landaguneetako biztanleek kalitatezko osasun-laguntza edukitzeko prestazioak eta eskubideak**

ZIOEN AZALPENA

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko landaguneetako biztanleen eskubideak arautzea eta sustatzea, bai eta Nafarroako herritar guztientzat exijitzen ahal diren osasun-prestazioen estaldura ere. Eta horiek garatzen ditu, oinarrizko osasun-laguntzari eta osasun-laguntza jarraituari, urgentziakoari eta laguntza espezializatuari dagokienez; izan ere, landaguneek ezin dituzte eduki hiriguneek dituzten zerbitzu berak, baina bai beren inguruabarretara egokitutako zerbitzu guztiak. Asmoa da Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrari buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean ezarritako neurriak osatzea, eta ekitate-printzipioa bermatzea eskueran dauden osasun-zerbitzu eta -profesionalak baliatzeari, osasun-laguntzari eta norbere osasun-egoeraren arabera zainketei dagokienez.

I. KAPITULUA
Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru lege honek helburu hauek ditu:

1. Nafarroako herritar guztientzat exijitzen ahal diren osasun-prestazioen estaldura arautzea eta sustatzea Nafarroako Foru Komunitateetako landaguneetan, bai eta landaguneetan bizi diren etorkinentzat ere, haien administrazio-egoera zein ere den.

2. Nafarroako Foru Komunitateko landaguneetako biztanleen eskubideak arautzea eta eskubide

horiek bete daitezzen sustatzea, kalitatezko osasun-laguntza jasotzeari dagokionez.

2. artikulua. 1. Foru lege honen eraginpean daude Nafarroako Foru Komunitateko landaguneetan errolatuta dauden edo bizi diren pertsonak.

2. Foru lege honen eraginpean daude, halaber, Nafarroako Foru Komunitateko landaguneetan noizbehinka ostatu hartzen duten pertsonak nahiz bertatik igaro direnak edo zirkulatzen dutenak.

3. Foru lege honen ondorioetarako, landaguneztat hartuko dira oinarrizko osasun barruti guztiak, Iruñerria izan ezik.

II. KAPITULUA

Landaguneetako biztanleen eskubideak eta prestazioak, urgentziako osasun-laguntzari dagokionez

3. artikulua. Kapitulu honen helburua da zehaztea osasun-urgentzien arloko laguntzaren kalitate-maila, erantzun-denbora eta laguntza espezializatua, onartutako estandar zientifikoen arabera zerbitzua ziurtatuko dutenak.

4. artikulua. 1. Bertatik bertara emandako laguntza ahal den eragingarriena izan dadin bermatzeko, lanpostuan bertan egon beharreko guardiak ezarriko dira, oro har, Nafarroako landaguneetako osasun-etxe edo/eta kontsultategietan, arriskuaren eta laguntza-estalduraren irizpideari jarraikiz, ezen ez biztanleria egonkorren edo erabileraren parametroei jarraikiz; hortaz, erreferentziako ospitaleetatik urrunen dauden eremuak lehenetsiko dira.

2. Urgentzia larrien eta emergentzien kasuan, modu eragingarrian bermatuko da beharrezkoak diren baliabideak berehala abiaraziko direla eta osasun-langileak gehienez ere 20 minutuan eta beharrezkoa den ekipamenduarekin iritsiko direla.

3. Urgentzia larrien eta larrialdien kasuan, betiere ziurtatuko da gaixoa erreferentziako ospitalera gehienez ere ordubeteko epean heltzea bermatuko duten baliabideak mobilizatuko direla.

5. artikulua. 1. Osasun-profesionalei bermatuko zaie erabilgarri izanzen dituztela berariazko ibilgailuak guardiak egiteko –bai lanpostuan bertan egon beharrezkoak izan, bai lanpostuz kanpokoak izan–, zeinak ezinbestekoak baitira klimatologia txarreko alderdietan, bideen zoladurarengatik igarotzeko zailak diren tokietan, mendialdeetan, eta abar. Ibilgailu horiek orobat edukiko dute emergentzietarako material egokia, pilotua eta sirena.

2. Nolanahi ere, beren ezaugarriengatik printzipioz berariazko ibilgailurik behar ez den alderdietan ere izanzen da baliabide bateratuak erabiltzeko aukera –esaterako, suhiltzaileen anbulantziak edo anbulantzia itunduak–, bereziki istripuetan.

3. Nafarroako landaguneetan dauden anbulantzien zerbitzua mantenduko dela bermatuko da.

6. artikulua. SOS-Nafarroarekin koordinatuta, emergentzietako baliabide eta zerbitzu espezializatuen babesa eta mobilizazio lehenetsia bermatuko da, urrunago dauden alderdietako edo iristeko zailak diren alderdietako osasun-lantaldeei laguntzeko; esate baterako, anbulantzia medikalizatua eta helikoptero medikalizatua.

7. artikulua. Prestakuntza jarraitu eta etengabea bermatuko zaie laguntza urgentea eman behar duten langile guztiei, lehenetsia emanda ospitaleetatik urrun dauden landaguneetako langileei.

8. artikulua. Telefonía mugikorrek gailuentzako edo bilagailuentzako estaldura bermatuko da landagune guztietan.

III. KAPITULUA

Landaguneetako biztanleen eskubideak eta prestazioak, oinarrizko osasun-laguntzari eta osasun-laguntza jarraituari dagokienez

9. artikulua. Kapitulu honen helburua da lan baldintzak hobetzea, errazte aldera landaguneko osasun-profesionalen egonkortasuna eta gaitasuna eta, halatan, ematen duten oinarrizko laguntzaren eta laguntza jarraituaren kalitatea.

10. artikulua. Landaguneetan lan egiten duten osasun-profesionalek beren lanpostuetarako ezarritako profila betetzen dutela bermatuko da, bai espezialitate-irizpideei, bai hizkuntza-irizpideei dagokienez.

11. artikulua. Hutsegiteak betetzen direla bermatuko da, kalitatezko laguntza mantentze aldera, populazio-datuak zein ere diren. Hartara, osasun-administrazioaren eta alderdietako osasun-kontseiluen artean ehunekoak adostuko dituzte, gutxienez ere % 70 betetzen dela bermatuta.

12. artikulua. Betetzen zailak diren lanpostuen kasuan, osasun-langileen hutsegiteak betetzeko sistemak ezarriko dira.

13. artikulua. Landaguneetako osasun-etxe guztietan bermatuko da beharrezkoak diren ekipamenduak eta laguntza urgente bital eta ez bitaleko tratamenduko lehen dosiak edukiko dituztela.

14. artikulua. Prestakuntza jarraitu eta etengabea bermatuko zaie langile guztiei, lehenetasuna emanda ospitaleetatik urrun dauden landaguneetako langileei.

15. artikulua. Laguntza jarraitua bermatuko zaie halakorik behar duten gaixo guztiei; horretarako, behar bezala koordinatuko dira oinarrizko osasun-laguntzako profesionalak eta oinarrizko osasun barrutiko urgentzietako profesionalak.

IV. KAPITULUA

Landaguneetako biztanleen eskubideak eta prestazioak, osasun-laguntza espezializatuari dagokionez

16. artikulua. Kapitulu honen helburua da landaguneetako herritarrei bermatzea eta erraztea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zerbitzu espezializatuak baliatu ahal izanzen dituztela.

17. artikulua. Taxutzen diren osasun-laguntzako protokolo eta plan funtzional guztietan –bereziki, gaixo kronikoei edo/eta pluripatologiak dituztenei aipamen egiten dietenetan–, lehenetasuna emanen zaie landaguneetako herritarrei; hartara, berariazko konponbideak taxutuko dira, herritar horiei prestazioetarako sarbidea errazteko.

18. artikulua. 1. Efizientziaren mesedetan, Nafarroako landaguneetako biztanleentzako interkontsulta ez-presentzialen prozedura sustatuko da ahal den kasuetan, alferreko joan-etorriak ekidite aldera.

2. Zitazioetarako zirkuitu bereziak ezartzea bermatuko da laguntza espezializatuko zerbitzuetatik 20 kilometro baino urrunago dauden landaguneen kasuan.

19. artikulua. Landaguneetako biztanleei bermatuko zaie garraio publikoa baliatu ahal izatea; hartara, garraio-sareak sortuko dira eskualdeka, landaguneetako biztanleak laguntza espezializaturara hurbiltzearren.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko nahiz apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena. Nafarroako Gobernuak foru lege honek ezarritakoa aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak emanen ditu.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dai-tezen agindu dut. Proposamen hori 2013ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

«7. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zerga-oinarria da zergaldiko hiruhileko natural bakoitzeko azken saldoaren batez besteko aritmetikoa egitetik heldu den zenbatekoa, kreditu-erakundeen balantzearen pasibo erreserbatuko 4. kontusailari –“bezeroen gordailuak”, finantza-orri indibidualetan jasotakoak– dagokiona, Foru Komunitateko lurraldeko egoitza nagusiak edo sukurtsalek eskuratutako gordailuei dagokien zatian.

Horretarako, azken saldoa minoratuko da ondoko kontusailetan jasotako saldoen zenbatekoetan:

a) 4.1, Espainiako administrazio publikoak, eta 4.3, administrazio publiko ez-egoiliarak.

b) 4.2.2.4., hau da, jaulkitako partaidetzak eta hipoteka-zedulak, zeinak 4.2.2 epigrafean (epe jakinerako gordailuak) baitaude.

c) 4.2.5., 4.3.2. eta 4.4.5. kontusailletako “balorazio doikuntzak”

2. Artikulu honetan aipatutako parametroak dagozkie finantza-informazio publiko eta erreserbatuko arauetara eta finantza-egoera orrien ereduari buruz Espainiako Bankuak kreditu-erakundeei emandako abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularreko IV. eranskinean eta II. tituluaren jasotakoei, edo horren ordezkotara arauaren jasotakoei».

Zioak: Ohartu garez, autonomia erkidegoetan onetsita dagoen araudi gehienetan (salbu eta

Kanariar Uharteetakoan), zerga-oinarriaren definizioa ez dago zuzen aplikatuta.

2. ZUZENKETA

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCIA

FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

7.1. artikulua bigarren lerokada aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

«Horretarako, azken saldoa minoratuko da “Jaulkitako partaidetzak eta hipoteka-zedulak” izeneko 4.2.2.4. kontusaillean jasotako zenbatekoetan, bai eta 4.1.5., 4.2.5., 4.3.2. eta 4.4.5. kontusailletako “balorazio doikuntzak” gisa jasotako zenbatekoetan».

Zioak: Minoraizotzen, “Jaulkitako partaidetzak eta hipoteka-zedulak” izeneko kontusaila ere eransten da, uste baitugu ez dituztela hirugarrenen gordailuak islatzen, baizik eta lagatuko baina halere entitatearen balantzean mantentzen diren zenbait maileguren kontabilitate-kontrapartida.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Kuota osoa zerga oinarriari % 0,03ko karga-tasa aplikatuz kalkulatu da.

Zioak: Lehenbizi, tarifa progresiboaren ordezkotara karga-tasa bakarra jartzen da. Izan ere, honelako zerga batean, non Nafarroan diren gordailuak soilik zergapetzen baitira, tarifa progresiboak ez du inolara ere gaitasun ekonomikoaren arabera zergapetzen, baizik eta kaltetu egiten ditu gordailu gutxiago izan guztira baina gordailu horietako gehienak Nafarroan dituzten entitateak. Horrek modu larrian diskriminatzen ditu tokian tokiko eta hurbileneko bankuak, globalagoak diren bankuen aurrean, bai eta bide elektronikoak erabiliz beren gordailuak deslokalizatu ditzaketan bankuen aurrean. Horrela, karga-tasa bakarra ezartzen da.

Bigarrenik, karga-tasa 0,03 jaitsi dugu.

4. ZUZENKETA

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

8. artikulua 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa, zerga-oinarriari beste karga-tasa bat ezartzeko:

- 0,02% (proposameneko % 0,3ren ordez).
- 0,03% (% 0,4ren ordez).
- 0,05% (% 0,5ren ordez).

Zioak: Proposamenak karga-tasa handiak planteatzen ditu, eta horiek egokitu beharra dago.

Karga-tasa txikiagoa bada, zailagoa da entitateek beren bezeroei jasanaraztea planteatzen den zerga hau, eta mugatu egiten du jokabide hori.

5. ZUZENKETA

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“8.2. Kenkari eta hobari orokorrak. Erregelamenduz ezarritakoaren arabera kalkulatu ateratzen den kuotatik ondoko zenbatekoak izanen dira kengarriak:

a) Kuota osoaren % 20, baldin eta kreditu-erakundearen egoitza soziala eta zuzendaritzaren benetako egoitza Nafarroan badaude.”

Zioak: Egoitza erreal eta benetakoa Nafarroako Foru Komunitatean duten entitateei laguntzea.

6. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa:

“a) Kuota osoaren % 40, baldin eta kreditu-erakundearen egoitza soziala Nafarroan badago.”

Zioak: Zergak, planteatuta dagoen moduan, zergapetze handiagoa dakar bertako bankuentzat gainerako entitateentzat baino.

7. ZUZENKETA

**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCIA
FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA**

8.2. artikulua a) letra aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“a) Kuota osoaren % 35, baldin eta kreditu-erakundearen egoitza soziala Nafarroan badago.”

Zioak: Proposatutako % 20ak gutxiegi dirudi.

8. ZUZENKETA

**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“a) Kuota osoaren % 25, baldin eta kreditu-erakundearen egoitza soziala Nafarroan badago.”

Zioak: Pentsatzekoa da egoitza soziala Nafarroan duten entitateek pasibo nahiz aktibo finantzario gehiago izanen dituztela Foru Komunitatean; hori positiboa da, baina, zergaren mekanikagatik, penalizazioak eragin ditzake. Zuzenketaren bidez, handitu egin nahi da proposamenaren dagoeneko jasota dagoen kenkari bat.

9. ZUZENKETA

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“8.2.b) 5.000 euro, Nafarroako lurraldean kokatutako sukurtsal edo bulego bakoitzeko; kantitate hori 7.500 euroraino igoko da baldin eta eroldaren arabera 3.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan kokaturik badaude. Zenbateko hori 15.000 eurokoa izanen da, baldin eta eroldaren arabera 1.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan kokaturik badaude bulegoak.

Zioak: Zerbitzua biztanle gutxien dituzten herrietan ezar dadin edo mantent dadin bultzatzea.

10. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa:

“b) 8.000 euro, Nafarroako lurraldean kokatutako sukurtsal edo bulego bakoitzeko; kantitate hori 30.000 euroraino igoko da baldin eta eroldaren arabera 2.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan kokaturik badaude.”

Zioak: Lege proiektuan kenkari espezifikoak ezartzen dira: 5.000 eurokoa, Nafarroako lurraldean kokatutako sukurtsal bakoitzeko, eta 5.500 eurokoa baldin eta eroldaren arabera 2.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan kokaturik badaude sukurtsal horiek. Horrekin, presentzia fisiko eta hurbiltasun handiena duten entitateei eman nahi zaie bultzada.

11. ZUZENKETA**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCIA
FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA**

8.2. artikulua b) letra aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“b) 8.000 euro, Nafarroako lurraldean kokatutako sukurtsal edo bulego bakoitzeko; kantitate hori 30.000 euroraino igoko da baldin eta eroldaren arabera 2.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan kokaturik badaude.”

Zioak: Hurbileko bankuaren ahaleginaren errekonozimendu eskasa, aurrezle txikiei, enpresa txikiei eta autonomoei dagokionez.

12. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

a) 5.000 euro Nafarroako lurraldean dagoen sukurtsal edo bulego bakoitzeko. Kenkaria 7.000 eurokoa izanen da sukurtsal edo bulego horiek eroldaren arabera 2.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan kokaturik badaude.”

Zioak: Herri txikietan dauden establezimenduengatik kenkaria handitu egiten da, jendeari ematen zaion arreta ez penalizatzen; izan ere, Nafarroak duen populazioaren parte handi bat lurraldean barreiatuta bizi da.

13. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiari beste letra bat gehitzeko zuzenketa:

“8.2.c) Inbertitutako zenbatekoen % 100, baldin eta entitatearentzat benetako gastuak badakar-tzate eta ondokoak badituzte xede:

– Entitate irabazi asmorik gabekoak, fundazioak eta GKEak.

– Entitateek beraiek Nafarroako Gobernuarekin sinatutako hitzarmenen ondorio diren ekintzak: elkartasunekoak, gizarteratzekoak, garapen sozioekonomikoak, onura publikokoak edo gizar-te-interesekoak.”

Zioak: Nafarroan gizar-te-konpromiso handiena duten entitateei laguntza ematea.

14. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiari beste letra bat gehitzeko zuzenketa:

“c) Aurrezki kutxen eta horien transformazioaren ondoriozko fundazioen gizar-te-ekintzetara bideratuak, eta kreditu-kooperatiben hezkuntza-eta sustapen-funtsetara, betiere kasuan kasuko zergaldian Nafarroan benetan inbertituak izan direnean.

Aurrezki kutxek edo kreditu-kooperatibek kreditu-entitate batean partaidetza badute eta entitate horien bidez gauzatzen badute zeharka beren finantza-jarduera, edota kreditu-entitate horietan partaidetza badute aurrezki kutxen transformazioaren ondoriozko fundazioek edo kreditu-kooperatibek, aipatutako kreditu-entitate horrek, zergaren subjektu pasibo delarik, aplikatzen ahalko du kenkari hori.”

Zioak: Kenkari berri hori sartuta, nahi dena da proiektu sozialetan, hezkuntzakoetan, asistentzialetan edo kulturaletan inbertsioak egiten dituzten finantza-entitateetan hori sustatzea, helburu hori duten tresna espezifikoek bidez. Zentzuzkoa dirudi inbertsio horiei laguntza ematea, Erkidegoaren gizar-te-garapenean eragin zuzena baitute, helburu horietara bideratutako funtsen kuotan minorazio bat eginda.

15. ZUZENKETA**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCIA****FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiari c) letra gehitzea. Honako testua izanen luke:

“c) Izaera bereziko fundazioen gizarte-ekin-tzetara bideratuak, aurrezki kutxen fundazioetara bideratuak, gizarte-ekintzetarako direnean, eta kreditu-kooperatiben hezkuntza- eta sustapen-funtsetara bideratuak, betiere kasuan kasuko zer-galdian Nafarroan benetan inbertituak izan direnean”

Zioak: Kenkari hori Estatuan indarrean diren gainerako araudietan jasoa dago, eta arrazoizkoa dirudi.

16. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiari c) letra gehitzea. Honako testua izanen luke:

“b) Zergaldi bakoitzean, bezeroei emaniko kreditu berriaren % 50, kreditu hori zuzenduta dagoenean enpresa txiki eta ertainei edota autonomei”

Zioak: Kreditu eskasia dela-eta, zeinak bereziki eragiten baitie enpresa txiki eta ertainei nahiz lan autonomoari, kredituak emateko pizgarriak sartu dira.

17. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

8. artikulua 1. idatz-zatian beste letra bat sartzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“8.2.d) Inbertitutako zenbatekoen % 70, baldin eta entitatearentzat benetako gastuak badakar-zate eta ondokoak badituzte xede:

- Enpresa txiki eta ertainen nahiz autonomoen sustapena.
- Ekintzailatzaren sustapena”

Zioak: Finantza-entitateek enplegua sortzeari babesa eman diezaioten bultzatzea

18. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiari d) letra gehitzea. Honako testua izanen luke:

“d) Kuota osoaren ehuneko 25, baldin eta subjektu pasiboa kreditu-kooperatiba dela jotzen bada”

Zioak: Kreditu-kooperatibak, sozietate kooperatibak direnez ondorio guztietarako, ekonomia sozialeko entitateak dira egiazki (hain zuzen ere, Ekonomia sozialari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legea aplikatzen zaie), egiazki pertsonen osatutako sozietateak, eta ez bankuak bezala, kapital-sozietateak baitira. Beren eginkizun soziala eta Espainiako finantza-mapa egituratzeko duten eginkizuna oso garrantzitsuak dira, are garrantzitsuagoak orain, aurrezki kutxen sektorea ia desagertuta dago eta.

19. ZUZENKETA**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCIA****FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiari d) letra gehitzea. Honako testua izanen luke:

“d) Kuota osoaren ehuneko 30, baldin eta subjektu pasiboa kreditu-kooperatiba dela jotzen bada”

Zioak: Babesa ematea ekonomia sozialari eta ekonomia errealekin oro har duen inplikazio eza-gunari, eta babesa ematea, halaber, ehun enpre-sarial endogenoari bereziki.

20. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiari e) letra gehitzea.

“e) Europako Erkidegoko araudiko definizioaren arabera enpresa txiki eta ertainak nahiz autonomoak direnei ekitaldi bakoitzean emaniko zenbateko guztien % 2”

Zioak: Onura fiskalak politika ekonomikoaren tresna gisa erabiltzea erabaki politikoen funtsaren parte dira. Horrela, gaur egun, non enpresentzako kreditua, eta bereziki enpresa txiki eta ertainentzako, hil ala bizikoa dela ikusi den, zilegi, egoki eta zuzena dirudi enpresa horiek finantzatzeko laguntzen duten finantza-entitateak saritzea.

21. ZUZENKETA

**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCIA
FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiari e) letra gehitzea. Honako testua izanen luke:

“e) Kasuko ekitaldian kreditu biziaren aurreko ekitaldiko saldoa handitzera bideratutako kreditu eta maileguen zenbatekoak; hain zuzen ere, Nafarroako sozietate ez-finantzarioen ekimen enpresarial pribatuen nahiz autonomoen finantzaketara bideratutako kreditu biziaren saldoa handitzera bideratutako zenbatekoak”

Zioak: Ekonomia errearen eta produktiboaren finantzaketarekiko konpromisoa.

22. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiari f) letra gehitzea.

“f) Nafarroako Foru Komunitatearentzat onura publikokoak edo gizarte-interesekoak diren proiektuetarako emaniko finantzaketa, edo lankidetzako publiko-pribatuko proiektuetarako emandakoa, proiektuok Nafarroako Gobernuak itunduak eta onetsiak baldin badira (edo, bestela, legez ezarritako proiektuetarako emandakoa)”

Zioak: Lehenago adierazitako ildotik, kenkari hau politika ekonomikoaren tresna bat da, eta Nafarroako Foru Komunitateak, horren bidez, Gobernuak nahiz Parlamentuak interes publiko berezikotzat jotako proiektuen finantzaketa orientatzen ahalko du.

23. ZUZENKETA

**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCIA
FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA**

8. artikulua 2. idatz-zatiari f) letra gehitzea. Honako testua izanen luke:

“f) Nafarroan egindako interes orokorreko edo lankidetzako publiko-pribatuko proiektuen finantzaketa, baldin eta Nafarroako Parlamentuak proiektuok zerga honen kuota osoan kenkaria izateko modukotzat deklaratzeko baditu lege baten bidez”

Zioak: Nafarroaren garapen estrategikoarekiko konpromisoa.

24. ZUZENKETA

**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCIA
FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA**

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testua honek aldatzeko litzateke:

“10. artikulua. Konturako ordainketa egin beharra.

Zergadunak behartuta daude konturako ordainketaren autolikidazio bat aurkeztera, kasuko zergaldiarena, ekitaldi bakoitzeko uztailean, aurreko zergalditik heldu den kuota likidoaren ehuneko 50ekoa.

Lehenbiziko zerga-aldian, konturako egin beharreko ordainketaren zenbatekoa jakiteko, zerga-oinarria hurrengo lerroaren arabera kalkulatu eta horri indarrean den karga-tasaren % 50 aplikatuko zaio, eta hori, kasua bada, 8.2 artikuluko a), b) eta d) letretan araututako kenkariekin minoratuko da.

Jakiteko zein izanen den lehenbiziko zergaldiko konturako ordainketa kalkulatzeko zerga-oinarria, ekitaldiko lehenbiziko bi hiruileko naturalak azken saldoen batezbesteko aritmetikoa egiten da, 7. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, eta zenbateko hori izanen da zerga-oinarria.

Zioak: Arrazoizkoa dirudi konturako ordainketak oinarri izatea aurreko ekitaldiko kuota likidua, eta ez, ordea, kuota osoa. Gainera, lehenbiziko zergaldiari begira, espiritu hori errespetatuko duen metodo bat zehaztea komeni da.

25. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

10. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“10. artikulua. Konturako ordainketa egin beharra.

Zergadunak behartuta daude konturako ordainketaren autolikidazio bat aurkeztera, kasuko zergaldiarena, ekitaldi bakoitzeko uztailean, aurreko zergalditik heldu den kuota likidoaren ehuneko 50ekoa”

Zioak: Edozein zergatan, konturako ordainketa-ekin aurreratu egiten dela zerga horren behin betiko ordainketaren parte bat, eta, normalean, behin betiko ordainketa exiji daitekeen zergaldiaren aurreko zergaldian egiten da. Horregatik, konturako ordainketak proportzionaltasun bat izan behar

du behin betikoz exijitzeko modukoa izanen den zenbatekoarekin, eta betiere behin betiko zenbateko horren zati proportzional bat izanen da.

26. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.
Hona testua:

“Bigarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, ezarriko du zer baldintzatan murrizten ahalko dituzten ukitutako entitateek foru lege honek zergapean jartzen dituen zenbatekoak, betiere ekonomia eta enplegua sustatzeko helburuz enpresei, autonomoei eta partikularrei benetan eman zaien kredituaren araber.

Zioak: Nafarroako ekonomia eta enplegua sustatzea helburu izanda enpresei, autonomoei eta partikularrei zuzendutako kreditu-jario handiena izan duten entitateak saritzea

27. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapena aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra. Betiere, 2014ko urtarrilaren 1etik aitzina hasitako zergaldietako ondorioekin exijituko da zerga.”

Zioak: 2014 urtea hasita dagoenez, ez dirudi ez egokia ezta arrazoizkoa ere legearen eragina 2013ko urtarrilaren 1eraino atzeratzea.

28. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapen aldatzeko zuzenketa.

“Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra. Betiere, 2014ko urtarrilaren 1etik aitzina hasitako zergaldietako ondorioekin exijituko da zerga.”

Zioak: Auzitegi Konstituzionalaren doktrina guztia ekarriko dugu hona, esaten duena zergarauek ezin dutela atzeraeraginik izan.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatukoa premiatzen dira neurriak har ditzaten doako osasun-laguntzaren inguruan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2014ko otsailaren 5ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatukoa premiatzen dira neurriak har ditzaten doako osasun-laguntzaren inguruan" Erabakia eragin zuen mozioa Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu zuten, eta 2014ko urtarrilaren 27ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren prozedurak ezar

ditzan, langabezian egonda Espainiako Estatutik kanpo bizi diren edo Nafarroara itzultzen ari diren nafar herritarrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan doako erabilbidea edukitzeko.

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du behar diren prozedurak ezar ditzan harako lege-araua indargabetzeko eta ondoriorik gabe uzteko, zeinaren bidez osasun-laguntza murrizten baitzaie urte natural batean atzerrian 90 egun baino gehiago bizi izan eta langabezian dauden espainiarrei".

Iruñean, 2014ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasuneko kontseilariak kargua uztearen komenigarritasunari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Osasuneko kontseilariak kargua uztearen komenigarritasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasan handiko galdera hau aurkeztu du, otsailaren 13ko Osoko Bilkurarako,

Osasuneko kontseilari Vera andreak ahoz erantzun dezan:

Osasuneko kontseilari izendatu zintuztenetik gaur arte denbora nahikoa izan duzu Osasun Departamentuaren beharrianak planifikatzeko eta egokitzeko.

Halere, Nafarroako Osasun Departamentuaren egiturak egoera larria bizi du: profesionalak, oro har, haserre daude, Ospitaleguneko arduradunek batek bestearen ondotik eman dute dimisioa, itxarrote-zerrendak, gaixoentzako janarien kalitate eskasa, urgentzietako itxaronaldi luzeak, plangintza eza... hori guztia, zenbait kolektiboren esanetan, sendagileak nahiz garbitzaileak.

Galdera:

Kontseilari zarenetik gure osasungintza –eta, horrenbestez, nafarren osasuna bera –gainbehera datorrela ikusita, ez al duzu uste Osasuneko kontseilari kargua utzi beharko zenukeela?

Iruñean, 2014ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, akitekoa Nafarroako Gobernuko lehendakariak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariarenganako konfiantzari eusten al dion, departamentu horren egoera larria dela-eta.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren egoera larria dela-eta, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak departamentu horretako kontseilari andrearenganako konfiantzari eusten al dion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak heldu den otsailaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren egoera larria, diru-bilketaren egoera, zerga-helbururik eza eta ekonomia nahiz enplegu arloko ekimena ikusita, Nafarroako Gobernuko lehendakariak departamentu horretako kontseilari Lourdes Goicoechea andrearenganako konfiantzari eusten al dio?

Iruñean, 2014ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuaren kirolaren, ekonomiaren nahiz politikaren arloetako konpromisoari buruzkoa eta jakiteko zer neurri hartuko dituen Miguel Indurain Sari Nagusia dela-eta.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuaren kirolaren, ekonomiaren nahiz politikaren arloetako konpromisoari buruzkoa eta jakiteko zer neurri hartuko dituen Miguel Indurain Sari Nagusia dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, 2014ko otsailaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Miguel Indurain Sari Nagusia da erkidegoan egiten den txirrindularitza profesionaleko lasterketa bakarra. Zein da Nafarroako Gobernuaren konpromisoa –kirolaren, ekonomiaren nahiz politikaren arloetan–, zertan gauzatzen da konpromiso hori, eta zer neurri hartuko ditu 2014ko lasterketari dagokionez eta 2013ko lasterketa jada egindakoa-ri dagokionez?

Iruñean, 2014ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, jakiteko Osasun Departamentuak bizi duen egoera larriari dagokionez zer balorazio egiten duen Nafarroako Gobernuak.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Osasun Departamentuak bizi duen egoera larriari dagokionez zer balorazio egiten duen Nafarroako Gobernuak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den otsailaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ezadostasun ugari gertatzen ari dira Nafarroako Gobernuko departamentuen eta horien zerbitzuko langileen artean, bai Gobernuak berak libreaki izendatutako karguen, bai profesionalen kasuan oro har. Horri gehitu behar zaizkio gizarte-talde

ezberdinek Gobernuaren jardunari egindako kritikak.

Osasun Departamentuan, zehazki, zenbait dimisio eta kargutik kentze gertatu izan dira konfiantza goreneko postuetan, eta osasun arloko profesionalak eta gizarte-taldeek auzitan jarri dituzte Osasun Departamentuko kontseilari Marta Vera andreak hartutako erabaki asko eta abiarazitako erreforma asko.

Agerikoa da, orobat, Parlamentu honek arbuia egin dituela, besteak beste, osasun-laguntza jarraituaren eta urgentearen erreforma, sukaldeen pribatizazioa, itxarote-zerrenden handitzea, oinarriko osasun-laguntzaren bilakaera edo osasun-garraioa. Agerikoa da Osasun Departamentua zuzentzen duen lantaldeak porrot egin duela abiarazitako proiektu eta ekintzetan.

Galdera:

Gobernuak zer balorazio egiten du Osasun Departamentuak une honetan bizi duen egoera hain larriari dagokionez? Nafarroako Gobernuak ba al du bere jarduna aldatzeko asmorik, Osasun Departamentuaren antolamendu, eraginkortasun eta efizientzian eragiteko, O-NOZeko berrantolamendu-planei eta -estrategiei dagokienez?

Iruñean, 2014ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

